...eta kitto!
816 zkia. 2012-IX-6
ASTEKARIA



# Arrateko Amari ohore

**matrikula zabalik**

**2012/13 EUSKARA IKASTAROAK**

***EUSKALDUNTZE OROKORRA***
(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

***XEDE BEREZIKO IKASTAROAK***
(aurrez aurrekoa)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

aek

Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org


KANTABRIA
Jatetxea
Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334
Edozein ospakizunetarako aukera
www.kantabriajatetxea.com
EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK
ARRATEKO SANTUTEGIAREN ondoan aurkitzen gara
Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak, zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak, karta, enpresa bazkariak…
RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Itziar Albizu
Maider Aranberri
Ekhi Belar
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Leire Iturbe, E. Belar
eta S. Hernandez
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA:**
Leire Iturbe
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz
**TIRADA:**
*8.100 ale*
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

# *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

ITTO.- Arnasarik gabe hil. *"Ez ekixan igarixan eta itto zan ur haundixetara juan zanian"*. Hil. *"Harrapatzen bazaittut, itto egingo zaittut"*.
EGARRIXAK ITTO.- Egarri handia izan. *"Nahi ardaua, nahi ura edo nahi petroliua, edozer bihar eban egarrixak ittoko ezpaeban"*.
ITTOMEN.- Oso barregarria, barrea eragiten duena; gauza edo pertsona ere izan daiteke. *"Lagun artian, ittomena da ha gizona"*.
Ito beharra, larrialdia. Bero haundia egiten duenean, edo jentez betetako leku batean, edo leku txiki eta estu baten sentitu daitekeena. Gaztelerazko ***'sofoco'***, ***'agobio'***. *"Horrek lekuorrek ittomena emoten desta"*.
ITTOTZEKUAK ERABILLI.- Barrez lehertu. *"Ittotzekuak darabixez alboko tabernan, hiru edo lau erantzaillek"*.

# ESKUTITZAK

## Euskal Presoak eta Giza Eskubideak

Azken aste hauetako gertakariek garbi laga dute batzuentzat zer ajola gutxi duten Giza Eskubideek. Euskal Preso Politikoenak badira gutxiago.

Horientzat, Iosu Uribetxeberria ez da sendatu beharra duen preso bat; kartzelan ez hiltzearekin nahikoa dute. Bere garaian behar bezala atenditua izan balitz, beharbada gaur ez zen hilzorian egongo. Eta horaindik Fiskalak zer esango zain, nahiz eta Epaileak askatasuna eman.

Bestalde, Estrasburgeko Epaitegiak argi eta garbi utzi du Espainiar Estatuak Giza Eskubideak urratzen dituela, bai Ines del Rio eta baita Parot dotrina delakoarekin ere, Bizi Osorako zigorra ezarrita duten 67 presoen kasuan ere. Ikusiko dugu honen inguruan Auzitegi Nazionalak zer erabaki hartzen duen hil honen 20an.

Eta bitartean, Euskal Presoak Euskal Herrira ekarri beharrean, urrutiratzen jarraitzen dute, azken asteotan hainbat kasu. Egoskortuta daude eta ez dute mugimendurik txikiena ere egin nahi, baina behartuko ditugu. Gu horretan gaude eta horretan saiatuko gara.

Inor gutxik imajinatzen du Euskal Herria bake egoera batean kartzelak presoz beterik dauden bitartean, eta egoera hau aldatu beharra daukagu.

Udazkena gogorra dator eta Preso eta Iheslarien eskubideen alde hainbat ekitaldian parte hartzera gonbidatzen ditugu eibartar guztiak. Hasteko, gure elkartasuna adierazteko Arrate Egunean, 12etan, Arrateko zelaian aterako dugun argazki jendetsuan parte hartuz. Aurrez mila esker.

***EIBARKO HERRIRA***

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

gizarte kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

**asteko 13.702 datua**

automobil dagoz Eibarko erroldan eta horretako 7.000 bakarrik aparkatzen dira garaje pribaturen batian. Udalaren datuen arabera, herri barruan 5.679 automobillendako tokixa dago eta industrialdietan, barriz, beste 700 bat aparkaleku gehixago.

## Neguko ordutegixa EuskoTren-eko autobusetan


BERZ barrixa igarriko dogu autobusen tarifetan be.

**ASTELEHENAZ GEROZTIK NEGUKO ORDUTEGIXARI HELDU DETSE** EuskoTreneko autobusak. Aldaketa nagusixak honetxek dira: astelehenetik barixakura Eibar eta Arrate bittartian udan eskintzen jardun daben zerbitzua desagertu da; Ermua eta Mendaroko autobusetan, zerbitzuen arteko maiztasuna atzera be 20 miñutukua izango da eta Udalbusarena, barriz, 30 miñutukua; Eibar eta Soraluze bittarteko autobusak orduoro ibilliko dira (salbuespena 10.05, 12.05, 16.05 eta 19.05etakuak); Ermua-Azpeitia bittarteko autobusak 06.00-etan, 13.00etan, 17.00etan eta 19.00etan urtengo dira Ermutik; eta Deba eta Itziar bittarteko zerbitzuak be neguko ohiko ordutegixari jarraittuko detse. Horrekin batera, zapatuan hasi ziran tarifa barrixak kobratzen, BEZ barrixa aplikatziarren.

## Gerrako Umien lehelengo alkarrizketa prest

**EGO IBARRA BATZORDIAK BADIHARDUGU ALKARTIAREKIN SIÑATUTAKO** hitzarmenari jarraittuta, honezkero "gerrako umietako" 10 alkarrizketatu dittue Ainhoa Bernabek eta Izaskun Gastonek: Nieves Atxa Garmendia, Jesusa Astigarraga Carral, Roberto Altuna Iriondo, Alicia González Atxa, Jose Antonio González Atxa, Roberto Marcano Magunazelaia, Jose Mari Oiarzabal Landa, Juan de los Toyos Garai, Juana Unzueta García eta Begoña Zaldibar Oianguren. Ego Ibarratik adierazi dabenez, alkarrizketatutakuak *"Errusian, Belgikan, Frantzian eta Inglaterran izandako umiak dittugu eta gaur egunian be ondo goguan dittue, umiak zirala, derrigorrian herrittik atzerrira bialdu eta han bizi izandako gorabehera gazi-geza guztiak".*



## Aniaiz Ariznabarreta kalian



**UZTAILLAREN 25-IAN EKIN KASUAREKIN ZERIKUSIXA ZEKELAKUAN** oiñ urte bi atxilotutako zortzi lagun, tartian Aniaiz Ariznabarreta eibartarra, aske lagatzeko erabagixa hartu eban Javier Gómez Bermúdez Espaiñiako Auzitegi Nazionaleko epailliak, beti be bakotxari ezarrittako 5.000 eta 9.000 euro arteko bermia pagau ostian. Aniaiz Ariznabarretarekin batera espetxetik urtendakuak Egoitz Garmendia, Urko Aierbe, Ugaitz Elizaran, Joxe Aldasoro, Rosa Iriarte, Eneko Compains eta Erika Bilbao izan ziran, danak be 2010eko iraillaren 14az geroztik kartzela diferentietan atxilotuta egondakuak. Kartzelatik urtenda, ordu txikitan aillegau zan Eibarrera Aniaiz eta, lagunetako batzuk ongietorrixa emoteko zaiñ euki zittuan arren, uztaillaren 27ko arratsaldian triki-poteua eginda ospatu eben preso egondako gaztia etxera bueltan egotia.




OLGA ELORZA GALLASTEGI

(2012-VIII-29)



*Beti izango zara gure oroimenean*

AMAGOIA ETA TXELUISEN LAGUNAK

## Estaziñua bixar zabalduko dabe



**EUSKOTRENBIDEAK-EK EIBARREN EGITTEN DIHARDUAN KONPONKETA BIHARRAK** amaittuta, bixartik aurrera atzera be zabalduko dabe goittik behera barriztatutako estaziñua eta Azittaiñen eraiki daben tren geltoki barrixa. Asmua piskat aurrerago geltoki bixak inauguratzekua zan, baiña hauteskundiak urrirako deittu dittuenez, legiak ez dau lagatzen inauguraziño ekitaldi ofizialik egitten eta, horregaittik, bixar bertan zabalduko dittue eta aurrerantzian erregular erabiltzeko aukeria egongo da. 100 urtetik gorako historixia dakan Estaziño kaleko geltokixa zaharbarritzeko biharrak 5'1 millioi euroko aurrekontua euki dabe eta, bestiak beste, jatorrizko fatxadiari eutsi detse. Azittaiñ inguruan trenbidia bikoizteko biharrak eta bertan geltokixa egittiak, barriz, 5'9 millioi euroko presupuestua euki dabe. Edozelan be, urrixan hauteskundiak pasau eta jarraixan inauguraziño ofiziala egitteko asmua aurreratu dabe agintarixak.




## Hotela barriro zabalik

**SORRERATIK OIN DALA GITXIRA ARTE ARRATE HOTELA IZANDAKUAK** atzera be atiak zabaldu zittuan abuztuaren lehelengo egunetan. Ego Gain kaleko hotela iazko azaruan itxi eben, hainbat arazo ekonomiko tartian. Harrezkero hotelaren arduria baten batek hartuko eban zaiñ egon dira asko eta abuztuan atzera be hotela zabaldu dabe jabe barrixak, Heybar Hotels&Resorts enpresakuak, Unzaga Plaza izenarekin. Enpresako zuzendarixa Andres Guasch da eta bera andaluza izanda be, bere famelixia Eibarkua da. Itxuria horrek animau dau hotela zabaltzera, hotelaren kokapen estrategikuarekin batera. Hotela martxan daguan arren, bixar inauguraziño modukua egitteko asmua agertu dabe, baiña bixen bittartian, hillebeteko martxiarekin pozik dagoz eta, eurak emondako datuen arabera, abuztuan hotelak izan daben okupaziñua %54 ingurukua izan da.

## autuan

**JABETZE ESKOLAKO IKASTARUAK**

Andrazkuendako bereziki pentsautako hiru ikastaro eskinduko dittue urritik aurrera: kotxien mekanikia eta etxeko konponketak (urriaren 9tik azaruak 27ra, Andretxean, 17.50etatik 19.50etara), autodefentsaren gaiñekua (urriak 20, goiz eta arratsaldez, Portalean) eta feminismuaren gaiñekua (urriak 1etik azaruak 5era, San Andres ikastetxian). Matrikulaziñua hillaren 10etik 27ra bittartian egongo da zabalik. Informaziño gehixago jasotzeko Andretxeara edo Bardintasun Arlora (Portalea, 4. pisua) jo leike.

**POSTA BIDEZKO BOTUA**

Urriak 21ian botua emoteko aukerarik izango ez dabeneri, aurretik korreoz botua emoteko aukeria badakela gogoratu nahi detse PSE-EE alderdixak eta horretan laguntasuna emoteko gertu topauko dittuela alderdixaren buleguan (Isasi, 2-2).








Ospittalaren biharrak egin nahi dittuenak hillaren 17rako presentau bihar dau eskaeria. / SILBIA HERNANDEZ

## Ospittala egitteko biharrak lizitaziñora

**EIBARREN OSPITTALA EGITTEKO PROIEKTUAN BESTE PAUSO BAT** aurrera emon da udan, Eusko Jaurlaritzak ospittala eraikitzeko biharrak zeiñek egingo dittuan erabagitzeko obria lizitaziñora etara dau-eta. Biharrak egitteko interesa daken enpresak iraillaren 17ra bittarteko tartia eukiko dabe euren eskintzak egitteko. Otaola Hiribidian, Mendiguren y Zarraua enpresiak bete eban tokixan ospittala eraikitzeko lizitaziño-aurrekontua 29 millioi eurokua da eta kontratuak 28 hillebeteko iraupena eukiko dau.

## Estaziño kaliak itxitta segitzen dau

**OPORREN AURRETIK AURRERATU GENDUAN MODUAN**, uztaillaren azken egunotan ekin zetsazen Estaziño kalia barriztatzeko biharreri eta, hori dala eta, oindiok be ezin leike bertatik automobillez ibilli, kalia jasota dagualako. Estaziño kalia oiñezkuendako erosuagua bihurtzeko asmoz egitten dihardUen biharrak amaitzeko lau hillebeteko epia eguan aurreikusitta eta, beraz, oindiok be itxoiñ egin biharko dogu kalia atzera be trafikuari zabaldu aurretik.





## Azpeittiko estokada onenari sarixa

**UZTAILLAREN AZKEN EGUNIAN**, Azpeittiko San Ignazio jaixetan, Eibarko Pedrucho zezenzalien alkartekuak Alberto Aguilarri jaixetako estokada onenari oroigarrixa emon zetsen, 2011ko abuztuaren 1ian Pedraza de Yeltes ganaderixako Medilonillo zezenari emondako ezpata-kolpiarengaittik.












RPS 04/02

# IRAZABAL
clínica dental

• Irribarreetan adituak

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA
## BARAZKIAK



Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Eibarko BM-n ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

*Azken aldixan Arrateko kurutziaren inguruan ibili zarienok konturatuko ziñazien hainbat aldaketa izan dirala bertan. Harri batzuk ikusiko dozuez han kokatuta,* "arrautza formako harrespilla edo cromlech bat osatzen ipiñittakuak, tokiko energixari egokitzeko ahalegiñetan"*. Han dagoz txingor-gain jokua eta laberintua be,* "hori dana lehenagotik dagozen kurutzia eta bere lorategixak osatzen daben geometrixa arauen arabera eginda" *diñosku* **Asier Arregi** *injineru agronomuak. Geometrixa berezi horretako neurrixak lurraren energixekin eta inguruko astruen mobimenduarekin erlaziñua dake.*
*Hau jakitturixiau antziñakua da, obra maisuek eta zenbait ofizixotako maisuek erabiltzen zebena.*
*Proiektua berak zuzendu daben arren, diseiñuan* **Geobiotek** *enpresako kide eta lagunen laguntza jaso dau, tartian Dominique Susani adittu frantziarrana. Hurrengo pausua belardixa hobetu eta sartutako harrixak hobeto finkatzia izango da. Kurutzian inguruan miradoria egitteko hasierako proiektuak ondoko piñadixa botatzia eta betelana gehixago zabaltzia aurrikusten zittuan, baina tartian hainbat arazo izan dittue:* "Udala ez zan salerosketa akordixuetara heldu onduan bista oztopatzen daben piñadixa bereganatzeko eta horrek eziñezkua egin zeban proiektuarekin aurrera jarraitzia, geldialdi haundixa egon zalarik".

# Ikasturte barrirako energixaren billa?



# Arraten duzu aukera

Udalak 2008xan eskatu zetsen herriko zenbait arkitekturi proposamen bat egitteko Arrate edo Santakurutz inguruan miradoriak hobetzeko, tartian Asier Arregiri be. Orduko sasoiak ez ziran gaur egunguak eta, eraikuntzaren boom-ian geuazenez, bera izan zan proposamenak aurkezten bakarra. *"Gauzatze Proiektua 2009ko uztaillian aurkeztu genduan, eta obren adjudikaziñua urtebete geruago egin zan, teorian lursaillan erosketia konpontzeko denboria hartuta. Obrak 2010eko iraillian hasi ziran".* Aste batzuk geruago geldialdixa etorri zan, obran bertan Udalak ondoko lursailla erosi ez zebala jakin zebelako, betelanakin ezin jarraittuta.



Asier Arregik proiektuarekin jarraitzen dau, bidian oztopo bat baiño gehixago izan badau be.

2000. urtetik hona geobiologixia lantzen diharduen eibartarrak argi daka lurran energixak betidanik izan dirala kontuan: *"Jauregi eta baserri zaharrak, ur-korrontiak eta aldagai geologikuak aintzat hartuta eraiki ziran, eta eliza eta baselizak era berezixan. Ez dago tenplurik ur-korronterik barik; normalian, gaiñera, altare inguruan holako energixa moten gurutze berezixak egoten dira. Arrateko kurutzian be, lurren energixeri begira triku-harri edo tenplu baten topau leiken egitturia dago".* Ez hori bakarrik, geometrixia be kontuan hartzekua dala diño Arregik: *"Geometrixa jakin bat erabilitta, geometria naturala, toki bateko girua hobetzia lortzen da, lurra eta zeruaren arteko oreka billatuz".* Eta XVII. mendera arteko basarrixak kontu horri jarraitzen zetsela diño: *"Ondo begiratu ezkero, basarri zahar askotan teillatuko maldia neguko solstizixoko eguerdiko kerizpiak egitten dabena da".*

Latitudian arabera eguzkixaren solstizixoko urteeria eta sarreren anguluak aldatu egitten dira eta hónek anguluok be, laukizuzen baten bilduta, tokixaren arabera proporziño harmoniko desberdiñak sortzen dittue. Lurraren inguruko astruak kontutan hartzen ziran "geometria sakratua" deitzen zan horretan. Berak nahixago dau "geometria naturala" edo "eguzki geometria" terminuak erabiltzia. Trikuharrixen eraikuntzan be holako proportziño eta kalkuluak ikusten dirala diño Eibarko injineruak.

Kurutzian inguruko proiektuari ekiñ aurretik, asko irakorri eban Arregik, *"aintzat hartutakuen artian, Juan San Martinek 'Antzinako Eibar'-en esandakuak".* Han jakiñ izan zeban 1652xan kurutzia Arraten eguala eta bertan jasota dagoz be *"Arrate bizitzaren sorlekutzat hartzen zala Eibar eta Elgoibar inguruan edo ezkongaixa billatu (kurutziari bueltak emoten eta salbia edo kreduak errezatzen), umiak Arratetik datozena edo gaixo eguazen umiak be hara birjiñapetik pasatzeko kontuak. Kondairak be badiño, amabirjiña edo dana dalako argittasuna harri artian agertu jakola artzaiñ edo baserritarren bati. Hortik Arri-arteko ama, kopla zaharretan jasotzen dan moduan.* Harri-arte garrantzitsu bat ho-

rrela agertziak *megalito edo triku-harri haundi baten irudixa dakargu".*

Kurutziari buruz, gehittu bihar *"1941eko haizetiak bota ei zebala eta ordukuak dirala gaur egunian kurutzian inguruan dagozen bost maillak (lehenago hiru eguazen) eta ezpel lorategiko diseiñua. Azken eraberritze hori marraztu edo gauzatu zebanak geometrixia eta lurren energixen jakiturixak zittuan ezpairik barik, eta hau ordena erlijioso batzutan behintzat gorde zan. Zeiñek egin zeban aurkitzen saiatu gara, baiña ez dogu ezebe ziurrik topau, gerra ostian Arraten erdi-preso abaderen batzuk egon ete zirana bakarrik, eta akaso euretakoren batek diseiñatuko ebala. Horri buruzko edozein datu barri ondo-etorrixa izango da".*

*"Eguzkixan solstizixuak sortutako kuadrilaterua ezpel lorategi barruko lau ertzek markatzen dabe, ekialdeko bixak eta mendebaldeko bixak. Barruko iparralde eta hegoaldeko ertzek iratargixan mogimenduakin erlazionatzen dira. Bi kuadrilateruen alde luziena geometrixa sakratuan erabilllittakua izan dan modulu baten neurrittan jarritta, gainontzeko ariketa geometrikuak egitten dira, bixen artian sortzen dan karratutik abiatuta. Kurutzeko maillen irregulartasuna be ez da kasualidadezkua. Bere trazaua geometrixaz kalkulauta dago. Antziñako trikuharri, harrespilla eta ondorengo tenpluetan eskema berdina jarraitzen zeben: Europa, Asia, Afrika edo Ameriketan be"* diño Arregik.

**Betelana parkia haunditzeko**

Hasierako proiektuak betelana piñadiko lurretan jarraitzia aurrikusten zeban, baitta proiektatutako arrautza forma ixa dana laua izatia be eta, harrixa barik, egurrezko barandillia arrautza formia egitten, *"baina momentuz Bergaretxetarrek (obrako kontratia) egindako lautada onakin konformatzia besterik ez jaku geratzen".*

Arrautza formia aukeratzerako orduan, gehixenbat, tokiko orografixak eta Juan San Martinek behin eta barriro aittatzen zeban "bizitzaren sorleku" horren sinbologixiak garrantzixa euki dabe. Hari bardiñetik, antziñako kantatan kurutziari bueltak emoteko kontuakin, zozua edo eperra barri-emole izaten zala agertzen da, neskarik ederrena nun daguan esaten edo nobixua zein izango dan.

Bertaraiño doian edonork ikusiko dau gurutze ondoko lautada barrixan kokatu dittuen laberintua eta txingor-gain (rayuela, gazteleraz) jokua. *"Joko horretara edo oso antzekuetara ixa kontinente guztixetan jokatu izan da. Umetan be danok jokatu dogu eta gaur egun be ondiokan jokatzen da. Umien jokotzat hartzen bada be, iniziaziño joko bat izan da, maillak igotzen, zazpi mailla zazpi txakra bezela hartuta".* Laberintuari dagokixonez, *"sanaziño laberintua da Arratekua, mendebaldetik sartu, alde batetik bestera ibilli eta ekialdera begira bukatzekua, gero barriro bueltia emon eta, bidiari jarraittuz, mendebaldetik urtetzen. Gorputzeko atalekin erreflejuak dagoz pasatzen zaran pasilluaren arabera".*

Harrixak be, jakiña, badake bere historixia: *"Harri berezixak dagoz kokatuta solstizixo bakotxeko (eguzkixa eta iratargixaren sarrera-urteerak), ekinozixokuak eta baitta iparralde eta hegoaldeko norantzetan be. Antziñako tribuak solstizixuetako eguzki urteera eta sarrerak oso kontutan hartzen zittuen, neguko solstizixoko eguzki urteeriari garrantzi berezixa emonez, hori da-eta bizitzaren sorreriakin gehixen lotzen dana. Arrate eguneko eguzki urteeria be gertu dagozen bi harrikin markauta dago ekinozixotik gertu".* 20 bat harri berezi dagoz bere tokixan eta, sinbologixiari jarraittuta, 52 dira guztira. Erdixan daguan "karratu-amak" eta zirkulu desbardiñak markatzen dabe 45 gradutara daguazen pasillo bakotxaren kokalekua.





Gurutze inguruak gehixago hobetzeko ahalegintxua egittia merezi dabela uste dau Arregik.

Arrateko Kurutze honetan Geometria Naturalaren jakiturixia erabili zan 1941eko berreraikitzian. Ezpel lorategiko diseiñuan, barruko ertzak mugatzen, eguzkixan kuadrilaterua (horizontalian daguana) eta iratargixana (bertikala) ikusi leikez. Honek laukizuzenok astro bixen mogimenduak eta kerizak agertzen dittue lurrian. Tokixak berak, lurreko energixeri begiratuta, trikuharri edo baseliza baten zentroko egitturia daka.
Kuadrilateruen alde luzienan neurrixa, modulu sakratua deitzen dana da. Dagozen zirkulu guztien diametruak, lorategi mugena eta baitta eskillara maillenak be, modulo horretatik hasitta geometria ariketa jakin batzuk eginda agertzen dira.

Ingurunia hobeto markatzeko eta dotoretzeko ideiak be badakaz: *"Harri gitxiago eta haundixaguekin biharbada polittagua geratuko zan, eta ulergarrixagua be".* Arlo horretan, injineruak kontatzen desku Debegesako teknikarixei proiektua asko gustau jakuela, eta Udalari lagunduz jardun zebela. Eurek proiektua argitzen eban panel bat ipintzeko ideia izan zeben eta, helburu horretarako, Asierrekin elkarlanian pauso batzuk emon zittuen; baiña, itxuraz, bertan behera geratu da.

Bide malkartsuaren ondoren iazko azaruan jaso zeben proiektua urtiaren barruan amaitzeko agindua eta presaka ekin zetsen laberintua eta txingor-jokua egittiari. Azkenian, eguraldixaren menpe, aurtengo urtarrilla hasieran gauzatu zeben: *"Hotz haundixa tokau jakun eta kare hidraulikua erabilitta gogortzia asko moteltzen da. Nahiz eta egin genduanian izotzik egon ez, bost egunetara izotza bota zeban eta goiko zentimetro bat inguru haustu, hauts bihurtu jakun".* Hori, arazua zelan konpondu erabagitzeko denboria hartuta, berriki egin dabe koloredun morterua erabilliz.

# Eskualdeko baserriko produktuen erakusleihoa

*Eskualdeko baserriko produktuen erakusleiho izateko helburuarekin sortu du Debemenek www.baserrikoa.com webgunea. Baserritarrek "era naturalean" ekoiztutako "kalitatezko produktuak" eskaintzen dituzte bertan, eta bezeroek produktuengana erraztasun handiagoa izanik iristeko informazioa lortu dezakete.*



Uztailean egin zuten Baserrikoa.com web-aren aurkezpena Elgoibarko San Pedroko Idotorben.

Baserrikoa Debabarrena proiektuarekin, baserriko produktuen merkaturatzeko bide laburrak bultzatu nahi dituztela azaldu zuten Debemeneko arduradunek www.baserrikoa.com webgunearen aurkezpenean. Eta bi dira jarraitu nahi dituzten ildoak: alde batetik, salmenta puntuen egokitzapena; eta, bestalde, web orrialdea.

Proiektuan eskualdeko 58 baserri daude: 13na Elgoibartik eta Debatik, 12 Mutrikukoak, 6 Soraluzekoak eta Mendaroko 4, gure herriko beste 10ekin batera. Honakoak dira bertan dauden Eibarko baserritarrak: Agirre Azpikoa (Maria Antonia Bergara), Barrundi (Mari Jose Unzetabarrenetxea), Gisasola (Aitor Gisasola), Lezeta Abeletxe (Margarita Baskaran), Mendigoitxi (Mariasun Azpiri), Orbesoren (Mari Tere Leturiondo), Oregizar (Jesusa Aranzeta), Sosola (Enrike Gisasola), Sumendixa (Miren Iriondo) eta Sumendixa Goikoa (Marcos Ubera).

Baserritar bakoitzak bere fitxatxoa du eta, kontakturako datuak izateaz gain, baserritar bakoitzak zer produzitzen duen jakin daiteke, eta produktu horiek non aurki daitezkeen azaltzen da. Gainera, salmenta online burutzeko orrialdea duten ekoizleen linkak bertan daude zuzenean erosketa burutu nahi duenarentzat.

Baserritarrak gure lurraldearen azaleraren %80 kudeatzen dute. Gure eskualdean, gainera, 41 landa auzo daude eta bertan 3.000 biztanle inguru bizi dira: eskualdeko biztanleria osoaren %6a. Landa horietako bost dira Eibarkoak: Mandiola, Gorosta, Aginaga, Otaola-Kiñarra eta, zelan ez, Arrate.





Gure herriko hamar baserritar daude une honetan proiektuan. Irudiotan horietako hiru.

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27
Bulegoa: Didebarrieta, 6
24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 82 15 39 · www.funeuskadi.com
Grupo Funeuskadi
· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

centromusikum.es
centromusikum@gmail.com
Estazi o, 8 - behea
670.472.648 / 943043789
Musikum

– Haurtxo, ume, gazte eta helduentzako **programak**
– Musika, artea eta sormena
– Gitarra, bateria, bibolina eta pianoa
– Musikoterapia
– **Sormen Ludoteka** (1etik 3 urtera artekoentzat) goizez

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.
ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com



*Ziriako Ortiz de Zaratek 31 urte egin ditu Arrate Irratian, aurreko San Jose egunean irratsaioa egiteari laga zion arte. Beste San Jose egun batean ekin zion irratiko bere ibilbideari, "arrebatzat nuen Elorreta baserriko Maria difuntak animatuta". Orduko hartan kanta eta bertsoekin hasitakoak azkenaldiko herri-kirolen jarraipenari eman zion paso, entzuleak agurtzeko "beste hiru bertso" bota bazituen ere. Tarte horretan kazetaria sentitu dela dio, oso pozik dago egindako bideaz eta, batez ere, "egindako lagunez eta ezagututako jendeaz. Guztiei eskerrak ematen dizkiet".*

## ZIRIAKO ORTIZ DE ZARATE:

# "Euskal Herrian ez da herririk egongo nik han aurkezpenik egin ez dudanik"

***- Zelan gogoratzen dituzu hasierako irratsaio haiek?***

Arrate Irratia berriro zabaldu zela-eta, don Pedrok hots egin zidanetik, beti gogo biziz jardun dut. Hasierako euskerazko kantuek eta bertsoek bost herritako (Abadiño, Berriz, Zaldibar, Mallabia eta Ermua) berriak jasotzearekin izan zuten jarraipena eta hori izan zen lan gehien eskatu zidan zeregina: horretarako, astelehen goizean jai hartzen nuen tailerrean... aurretik zapatu arratsaldean errekuperatuta, jakina.

***- Noiz hasi zinen hain gustoko dituzun herri-kirolak kubritzen?***

Bernardo Ibarra irratiko zuzendariak hala eskatuta hasi nintzen aurretik Emilio Azurmendik jardundako lanean. Herri-kirolak aurkezten ez da izango herririk Euskal Herri osoan nik bertan aurkezpenik egin ez dudanik. Hemendik kanpo ere jardundakoa naiz lan horretan: Madrilen, Bartzelonan, Sorian, Asturiasen... Kanarietan ere izan naiz, hiru urtetan, hemengo kirolariekin bertara joanda.

***- Tailerrean beharrean jardunda ere, kazetari sentituz.***

44 urte eman ditut lantoki berean, ugazabarekin ondo konpondu izan naiz eta banuen tarterik gauza biak batera eramateko, kazetari sentitu arte.

***- Hutsunerik nabaritu duzu orain, irratsaioa lagatzean?***

Pixka bat. Hasieran pena handia, hiru bertsoekin agurtu nintzenetik. Baina ibilbidea pozgarria izan dela onartuz eta, Arrateri esker, jende asko ezagutu dudala jakinez. Gero konturatu naiz, gainera, une ezin egokiagoan laga dudala, ordutik Donostian eta Mendaron ingresatuta egon naizelako.

***- Zelakoa da Arrateko Irratiko entzulea? Zelan ikusten duzu zuk?***

Entzule ona eta jatorra. Bizkaian eta Gipuzkoan jarraitzen da batez ere, baina neri suertatu zait Kantabriatik, Asturiasetik eta Soriatik ere entzutea irratia. Bizitza erdia eman didate neri entzuleek eta hori nabaritu izan dut azken aldian ospitalean egon naizenean ere: bisitak, umeen besarkadak...

***- Herri-kirolek badute merezitako tartea komunikabideetan zure ustez?***

Gero eta gehiago. ETB-ren programazioan indartzen doaz, nahiz eta jaialdiak gutxitzen.

***- Animaliekin egiten diren herri-kirolak ez doaz gutxitzen?***

Ez nuke hori esango. Idi-probek bere indarrari eusten diote, ahari-jokoak astero egiten dira Azpeitian... Izatekotan, oilarren kontua, debekatuta daude-eta.

***- Jendea hurbiltzen da herri-kiroletara?***

Sarrerek zerikusi handia dute; horren araberakoa da. Ordaindu gabekoa bada, lehertzerainoko betekadak ikusi daitezke herri-kiroletan.

***- Zein proba gustatuko litzaizuke ikustea? Zein da erreginа zuretako?***

Gustora ikusiko nuke bi elkarren arteko lehia 10-11 arrobako harri kubikoarekin, 10 minutuko ekitaldian. Sarrera garestienak ere hor izaten dira: hor eta aizkoran.

***- Apustuzalea zara, ezta?***

Bai, hor kirolariek gehiago -edo dena- ematen dutelako. Erakustaldietan-eta erosoago dabiltza, abildadeak gordez eta jairik-jai. Sasoi bateko Endañetak apostu asko egin zituen. Perurena handiak ere bederatzi egin zituen, gehienak galdu bazituen ere apostuak baztertu baino lehen.

***- Zelan dago herri-kirola Ermuan eta Eibarren?***

Ermuan Ureta baserriko 11 urteko harrijasotzailea badugu, bikaina datorrena. Zelairekin dabil. Eibarren izan zenuten kumaldi bikaina: Larrañaga, Bihurri, Kortina, Baglietto aizkorarekin... Baina ostilarien bidetik jo duzue, Susaeta, Galarreta eta abarrekin.

***- Herri-kirolaririk konpletoena zure gustorako?***

Kirol guztiak kontuan hartuta, Olasagasti: denetan moldatzen da ondo. Eta pilotan, Gallastegi.

***- Zelan agurtuko zenuke zure entzulea izan dena?***

Esanez Arrate Irratiko entzule jator eta gogotsuak izateko, Ziriako bertan ez bada ere. Kontuan izan ni baino hobeak daudela egun. Bihotzez estimatuko nuke entzule finak izatea.




# Estilo diferentiak bat egingo dabe taula gaiñian

Urteroko moduan, Arrate egunaren bezperarako hainbat kontzertu antolatu dittue txosnak, zelaixan bertan egingo daben herri afarixaren ostian gabian bertan parrandan geratu nahi dabenak jaixan murgiltzeko aukeria izan deixen. Horretarako, eta urteroko martxiari jarraittuta, rock musikiarekin edarto gozatzeko aukeria eskinduko dabe, musikia ulertzeko hiru modu diferente daken beste horrenbeste musika talde kartel bakarrian alkartuta: barixakuan 23.00etatik aurrera Matxura, Capsula eta Itaca Band taldiak zuzenian joko dabe Arrateko zelaiko taula gaiñian.


Itaca Band

Capsula taldia jatorri argentinarra daken hiru musikarik osatzen dabe eta taldiak kontzertu mordua eskintzen dihardu mundu osuan zihar, rock energiko interesantia jorratuta. Taldia jendiarendako ezaguna izatiaren arrazoi nagusixa argittara emon dittuen diskuak izan dira, baiña zuzeneko emanaldixetan egoteko aukeria euki dabenak zur eta lur geratu ei dira sarrittan. Izan be, eta aditu askok pentsatzen dabenez, gure belaunaldixan zuzeneko talde onenetarikua izatera ailegau dira, taldiaren zuzeneko bortitzarekin, eta The Stooges, Sonic Youth edota Comets on Fire moduko taldiekin konparau izan dittue behin baiño gehixagotan.

Matxura taldiak, barriz, estudixo baruan egindako biharraren lehelengo emaitza dan disko baltza presentatzeko aprobetxauko dau Arrateko emanaldixa. Kontzertuaren ardatza osatuko daben diskuak 2011n ikusi eban argixa, Bonberenea Ekitzak zigilluak babestuta, eta harrezkero eszenatoki batetik bestera zuzeneko emanaldixetan ezagutzera emoten dihardue. Taldiaren lana ezagutzen dabenen berbetan, *"metal industriala, zaratia, illuntasuna, energixia... suizidio herrikoia bultzatzeko soiñu banda ederra!"*.

Eta hirugarren taldia, Itaca Band, Kataluñatik etorriko jakun ska-reggae taldia da. Montcada i Reixac (Bartzelona) herrixan eratutako bandak erritmo beruak jorratzen dittu, ska azkarretik abiauta, salsa giro dantzagarrixak zein reggae erritmo gozoetan sakonduta. Kontzertua 'La Selva' diskua presentatzeko aprobetxauko dabe.

Eta Arrate egunian be egongo da musikiarekin ondo baiño hobeto pasatzeko aukerarik, 18.30xetatik aurrera Kupela taldekuak eskinduko dittuen dantzarako doiñuekin lehelengo eta jarraixan, barriz, adin guztietakuak azkar batian dantzan ipintzeko abilidadia daken MP5 taldekuekin.


Capsula


Matxura



# FORTUNATO VESGA VESGA

*2012ko abuztuaren 30ean hil zen, 91 urterekin*

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Kittonbolia

# Euro baten truke...



SILBIA HERNANDEZ

BEZa ez da igo Arratietako Kittonbolan; hasieratik egiten den moduan, euro baten truke sariz beteta edukiko duzue ...eta kitto! Euskara Elkarteak prestatzen duen Kittonbolia. Larunbata izanik, jende asko espero da aurtengo arratietan, baina badago oparirik zuen zain. Euro bat jokatuta, etxerako bidean besapean oparia eramateko aukera handia izango dute bertara gerturatzen diren guztiek. Hurrengo orri bietan dituzuen enpresa, denda eta komertzioei esker, Kittonbolia sariz betetzea lortu dugu.

### SARI GEHIAGO

Inoiz baino sari gehiago lortu ditugu, guztira 5.000 saritik gora. Apirilaz geroztik dihardugu sariak jasotzen eta datorren zapatuan guztiak izango ditugu Arraten, banatzeko prest.

Zortea guztion esku izateko asmoarekin antolatu dugu berriro ere Arrateko tonbola berezia. Baina Kittonbolia zortea zirikatzeko tonbola baino gehiago da, ...eta kitto! Euskara Elkartearen proiektuari laguntzeko modua ere bada, Eibarren euskara bultzatzeko modua; hori bai, parte hartzen duen eibartarrak saria jasotzeko aukera asko ere badu. Diru-laguntzak behera doazen honetan, inoiz baino garrantzitsuagoak dira horrelako ekimenak Euskara Elkartearendako.

Gainera, eibartarrek eskainitako laguntasunak gure egunerokotasunean egiten ditugun ekitaldietan, aldizkariaren argitaratzean eta abarrean eragin zuzena izango du. Urte osoan zehar lanean jarraituko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Eibarren euskara bultzatu eta indartu nahian, eta horrelako egunek asko laguntzen dute.

### 10.00ETAN ZABALIK

Betiko moduan, sariren bat irabazteko aukera ez da txikia izango, telebistak, afariak, urdaiazpikoak, edertasun tratamenduak, etxeko tresnak, kamisetak, CDak, MP-5a, bizikleta, Nintendo DSa, otarrak etabar luzea. Guztira 5.000 sari baino gehiago. Hori guztia lortzeko ezinbestekoa izan dugu hainbat denda, enpresa eta elkarteren kolaborazioa. Hurrengo orri bietan dituzue laguntasuna eskaini duten guztien zerrenda.

Beraz, zapatuan elkar ikusiko dugula espero dugu. Goizeko 06.00ak bueltan izango gara Arraten azkeneko antolaketa lanak egiteko eta 10.00ak puntuan salduko dugu lehenengo boletoa.

Ikasturte berria hasiko dugu guztiok egunotan; horri aurre egiteko jai giroa baino hoberik ez dago eta Arrateetako jaiak eta Kittonboliak, besteak beste, hori dute helburu, ikasturte berria ezin hobeto hastea. Tonbolako sariak zure zain daude. Zorte on guztioi!



# KiTTONbolia

*Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera asko izango dituzue. Eskerrik asko parte hartu duten denda eta enpresa guztiei!!!*

...eta kitto!
Euskara Elkartea

- Aisia hotelak
- Alfa
- Ansa bitxitegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- Benicoba
- Burbujas y más
- Capi
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- E&M
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Outlet
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkartea
- Eibarko Udala
- El Cantón de la Avenida
- El Casco
- El Corte Ingles
- Emankor taldea
- En boga ileapaindegia
- Eroski Hipermerkatua
- Errebal kirolak
- Eslune
- ...eta kitto!
- Esteban Oroz
- Euskadiko Kutxa-Caja Laboral
- Farmalur
- Gerritek

**5.000 sari baino gehiago goize**

# Eskerrik asko parte hartu duzuen danori!

- Goien oinetakoak
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- Jauregui
- Jaz- Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia
- Katetxo
- Kerala
- Ketesa
- Kokein
- Krabelin hotela
- Kros-sports
- Kultu taberna
- Lakett
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide
- Lola's
- Maitane jatetxea
- Mamacas
- Manufacturas Ges
- Marian-Idoia spa
- +quñas
- +qwapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Neure
- Orbea
- Pirritx eta Porrotx
- Pitxiak
- Policlinica Gipuzkoa
- Publiresa
- Quetzal
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa
- Solera Estankoa
- Su Beroa-Oishi
- Su Ta Gar
- Talleres AIBE
- Tribeka
- Trinkete



- Triplex
- Udalaitz
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zurkulu

ko 10.00etatik aurrera...

# Arrateko Amaren Jaixak 2012

## Iraillak 7, ARRATE BEZPERIA

**18.00.-** MEZIA Arrateko Santutegixan eta, ondoren, SALBEA. Jarraixan, TXUPINAZUA eta kanpai-errepika.

**19.00.-** HERRI KIROLAK.

**21.00.-** BERTSO AFARIXA: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Igor Elortza. Gaijartzaillia: Asier Ibaibarriaga. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ... eta kitto! Euskara Elkartea.

**23.00.-** Rock KONTZERTUA, txosnen eskutik: Capsula, Matxura eta Itacaband.







Hiru-txirloko txapelketia izango da aurtengo barrittasunetako bat. Herri-kirolak, bestalde, Arrate bezperara pasatuko dira aurten.




## Iraillak 8, ARRATE EGUNA

**10.00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera IGOERIA, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaua banatuko dittue Zesteroko itturrixan Jai Batzordiak antolatuta.

**10.00.-** KITTONBOLIA!

**10.30.-** KALEJIRIA Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.

**11.00.-** MEZA Nagusixa Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren EZPATA-DANTZIA egingo dabe. Ondoren, Arrateko Amaren PROZESIÑUA, Usartza Txistulari taldiak, Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta.

**12.30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak ARRATEKO AMAREN DANTZAK aurkeztuko dittue zelaixan.

**13.30.-** TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXEN saiua.

**17.00.-** BERTSOLARIXEN SAIUA.

**17.00.-** Arrateko Amaren HIRU TXIRLO Sarixa. Antolatzaillia: Asola Berri alkartia.

**17.30/20.30.-**.- Bete zaitez… baina emozioz! Alkoholaren inguruko kanpaiña informatzaille eta hezitzaillia. Sasoia alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) ALKOHOLEMIA KONTROLAK egingo dittu. Antolatzailliak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza.

**17.30.-** DANTZA SOLTE TXAPELKETIA. 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).

**18.30/21.00.-**.- DANTZALDIXA Kupela taldiarekin. Jarraixan, kontzertua.

## Iraillak 9, KOFRADIXA EGUNA eta basarrittar jubilauen eguna

**10.30.-** Simón Aldazabal XVII. ANTXITXIKETALDIXA. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik). Aurten Edorta Aranburuzabala atleta omenduko dabe.

**11.00.-** MEZA NAGUSIXA bertsolarixekin eta Arrateko ezpata-dantzariekin. Ondoren, prozesiñua trikitilarixak lagunduta.

**12.00.-** PAELLA LEHIAKETIA.

**14.00.-** Paella lehiaketako irabazlieri SARIXAK BANATZIA.

**14.30.-** JUBILAUENDAKO BAZKARIXA, Kantabria jatetxian. Basarrittar nagusixeri oparixak banatuko detsez. Trikitilari eta bertsolarixak be hartuko dabe parte.

**17.30.-** IDI PROBAK.

## Jaixak Herrixak Herrixandako

### Iraillak 7, Arrate bezperia

**21.30.-** HERRI-AFARIXA.

**23.00.-** KONTZERTUAK: Capsula, Matxura eta Itaca Band. Horren ostian jolasak eta, gabian zihar, Mojito eta Sangria jaixa, Gazte Asanbladaren eskutik.

### Iraillak 8, Arrate Eguna

**12.30.-** PRESUEN ALDEKO talde ARGAZKIXA.

**22.30.-** KONTZERTUA, MP5 taldiarekin.

## Arrate egunaren inguruko mezak

**– BARIXAKUAN (ARRATE BEZPERAN): 18.00.- Salbea.**
**– ZAPATUAN (ARRATE EGUNEAN): 09.30etan, 11.00etan (Meza nagusia eta prozesioa), 13.00ean eta 18.00etan.**
**– KOFRADIA EGUNEAN (IRAILAK 9):**
**11.00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.**

## Autobus zerbitzua

**– ARRATE EGUNEAN, Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 03.00etan, 04.00etan, 05.00etan, 06.00etan, 07.00etan eta 08.00etan. Arratera igotzeko autobusak, berriz, Untzagatik (Guridi paretik) irtengo dira 09.00etatik aurrera, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko, orduoro, 22.00etatik 03.00etara (azkena) irtengo da Arratetik.**
**– KOFRADIA EGUNEAN (hilaren 9an), jaien errepikapena dela-eta, ohiko ordutegian ibiliko dira autobusak, baina zerbitzua indartuko dute. 09.00etan, 10.00etan, 11.00etan, 13.00an eta 18.00etan irtengo dira autobusak, Urkizuko autobus geltokitik, ohiko geltokietan geratuta.**

## Telefono jakingarriak

**LARRIALDIAK.– SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222. DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.**
**OSASUN ZENTROAK.– Larrialdiak: 943461111 /943440633. Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.**
**BESTEAK.– Suhiltzaileak: 112/943202328. Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.**
**GARRAIOAK.– Untzagako taxiak: 943203071. Anbulategiko taxiak: 943201325. Eusko Trenbideak 902543210 / 943120546.**

eguraldia (EUSKALMET.NET)



## Concepto Egilek talde erdia berritu du



Concepto Egilera etorri diren zazpi jokalari berriak.

**IBARRATIK FITXATUTAKO JOSEBA BALERDI** atezainarekin batera, Alvaro Barrera "Buitre" (Peñiscolatik dator eta 21 urtetik azpikoko Espainiako selekzioko jokalaria da), Fernando Fernández "Fher" (Alcañizetik), Ivan Quintín (Zaragozako Sala 10-etik), Raul Nieto (Guadalajaratik) eta Koldo Urtizberea (GORAtik) ekarri ditu kanpotik aretofoballeko gure eskualdeko talde nagusiak. Eurekin batera, jokalari berriak izango dira Alex Santiago (Eibar KEko jokalaria izandakoa) eta Michael Vidal ere (bigarren taldetik igoko dena). Iazko taldetik jarraituko dute Ekaitz Insausti eta Iker Oñederra atezainek eta Xabi Pérez, Unai Labaka, Alex Alonso eta David Garrido kantxako jokalariek.

Abuztuaren 20an entrenatzen hasi eta gero, aurreko zapatuan jokatu zuten aurredenboraldiko lehenengo partidua (11-3 Ibarrari).

**Bigarren taldea: Maqcenter**

Eibarren jokatzen duen Debabarrena eskualdeko areto-foballeko bigarren taldeak Maqcenter izango du izena denboraldi berrian. Enpresa horrek Kataluniako Rubí hirian du egoitza eta industriarako makineriaren komertzializaziora dedikatzen da. Eibarko talde horrek Euskal Ligan jokatuko du.

## Somos Eibar Eskubaloiak irailaren 22an hasiko du liga



Maila berria eskuratuko du aurten eskubaloiko lehenengo taldeak.

**EIBAR ESKUBALOIKO LEHENENGO TALDEAK** Elgoibarko Alcorta Forging Group izango du aurkari Ipurua kiroldegian estatuko 1. mailako ligaren estreinaldian. Hilaren 22an borrokan izango diren talde biak berriak dira maila horretan: elgoibartarrek igotzea lortu zuten azken denboraldian eta eibartarrak krisiak eragindako taldeen artean izan diren hainbat hutsuneetako batez baliatu dira maila horretara iristeko.

Imanol Alvarezek prestatzen duen taldeak abuztuaren 20an hasi zituen entrenamenduak eta aurredenboraldiko lehen partidua domekan jokatu zuen Egiaren aurka, Euskadi Kopa-ren barruan. Gaur bertan Ereintzaren aurkako lagunartekoa jokatuko dute Errenterian, domekan Elgoibarko Alcorta hartuko dute Ipuruan Euskadi Koparen barruan, eta eguaztenean Pulporen kontra jokatuko dute Zumaian. Hurrengo asteko asteburuan Arrasateko Torneoan izango dira eibartarrak, Trapagaran, Gure Auzune eta Arrasaterekin batera.

## Herriko waterpoloa berregituratze lanetan



**WATERPOLOAK GERO ETA KIROL GARRANTZITSUAGOA** bihurtzen dihardu gure herrian eta, horrela, batez ere gazteenei zuzendutako torneoa (Arrateko Torneoaren 1. edizioa) hasi zen jokatzen astelehenean Orbea kiroldegian eta gaur amaituko da. Torneo horretan 1999an, 2000n, 2001ean eta 2002an jaiotakoek hartzen dute parte, gutxienez bost jokalariz osatutako taldeetan. Azken denboraldian Urbat-Urkotronik-eko infantil mailako taldeak Eskolarteko Liga irabazi du eta, erronka berriei erantzuteko, taldearen berregituraketari ekin dio denboraldi berriari begira. Kirol hori praktikatzeko interesa duenak 688-610627 telefono zenbakira deitu dezake edo www.urbat.es helbidera jo.



Beti laguntzeko prest, irrifarrea ahoan, ezezkorik ez. Taldekide fina, prestua eta nekaezina. ***Eskerrik asko, ARRATE.***

***...eta kitto! Euskara Elkartea eta Berbetan mintzapraktikako taldekideak***

## Eibarrek domekan jokatuko du Tuteran

**GAIZKA GARITANOK ZUZENTZEN DUEN TALDEAK** Tuteran jokatuko du domeka arratsaldean, 18.00etan hasita, Ciudad de Tudelako zelaian. Tudelano berdinduta dago eibartarrekin bigarren jardunaldia jokatu ondoren: biek ere lau puntu dituzte, partidu bat irabazi eta bestea berdinduta. Eguaztenean, bestalde, Lleida Esportiuren zelaian jokatuko dute eibartarrek Kopako bigarren kanporaketaren partidua; Eibar KEk ez du zorte askorik azken urteetan eta oraingoan ere kanpoan jokatzea egokitu zaizkio lehenengo partiduak. Laudion 0-1 irabazi eta gero, Lleida aurkari gogorragoa izango dute seguruenik. Denboraldi berrirako, honako jokalariek osatuko dute plantilla: Irureta eta Altamira atezainak; Raul Navas, Arregi, Aimar, Bingen, Bóveda, Yuri eta Añibarro atzelariak; Diego, Guille, Dani García, Capa, Del Olmo, Abaroa, Errasti eta Arroyo erdilariak; eta Mainz, Aketxe, Arruabarrena eta Jito aurrelariak.





## Romaratek diploma eskuratu du Londresen

**EIBARKO IGERILARIAK ZAPATUAN EGIN ZUEN DEBUTA** 100 metro brazako proban, baina bere seriean 5. postuan sailkatuta ez zuen proba horretako finalerako txartelik eskuratu. Herenegun, bestalde, eibartarra hobeto moldatzen den bizkar erako 100 metroko txapelketan, finalerako txartela eskuratu zuen goizean eta arratsaldean, berriz, zazpigarren amaitu zuen proba, modu horretan diploma eskuratuz. Zapatuan amaituko du bere partehartzea Londreseko Joko Paralinpikoetan 100 metro estiloetako erreleboetako proban, Jokoak amaitu bezperan. Eibartarrari ez zaizkio animorik falta izan, Urbat-Urkotronik-eko ordezkaritza zabala izan baita Erresuma Batuko hiriburuan.

## Igor Fernández eibartarra bigarrena Otañesen

**CASTRO URDIALESEN JOKATUTAKO MENDI LASTERKETETAKO** Espainiako Kopako azken proban, Trail Rae Otañesen, Igor Fernández eibartarrak lan bikaina egin zuen eta bigarren postua eskuratu. Otañeseko probak 34 kilometro ditu eta bertan batzen den desnibela 4.000 metrokoa da. Ibilbidea betetzeko 3 ordu eta 38 minutu behar izan zituen eibartarrak, berez egutegiko proba gogorrena zena (puntu gehien banatzen ziren bertan) askoz gogorragoa bihurtu zuen bero kiskalgarriari aurre eginez: 30 gradutik gorako tenperatura jasan zuten kirolariek.








# BEZaren igoera: lehen %8 zena orain %21 bihurtuta

*Irailaren 1etik dena da pixka bat garestiagoa gurean, BEZaren igoerak egunero erosten ditugun produktuen igoera ekarri baitu. Igoeren artean, garraioan emango direnak badute pisua eta baita ehorzketakoak ere (hiltzeko ere ez gaude sasoi onean). Jateko kontuetan, bestalde, barazkiak janda merkeago: azkenean, gure osasunaren alde joko du neurriak. Eskerrak eman beharko ditugu!*



Aurtengo opor-itzulera inoiz baino gogorragoa izan daiteke.

Hartutako neurriarekin, Espainiako gobernua 9.500 milioi euro ingresatuko duelakoan dago, Hazienda ministeritzako teknikoek eurek ere hainbeste ezetz eta 7.500etik ez dela pasatuko esan badute ere. BEZaren igoerarekin batera, Gobernuak beste neurri batzuk ere hartu ditu, tartean funtzionariei Gabonetako paga extra kentzea, IRPF-a %15etik %21era igotzea autonomoei “tarte baterako”, zazpigarren hilabetetik aurrera langabetuei %60tik %50era jaistea kobratu beharrekoa etabar luze bat.

Argia, gasa eta telefonoaren fakturak BEZaren %18tik %21erako igoera izango dute irailaren 1etik aurrera, nahiz eta hor agertzen diren kontsumoak data horren aurrekoak izan: horrela agindu baitzuen abuztuan onartutako Zergen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen batek.

Etxebizitzaren arloan, %4ko BEZa izatetik, %10ekoa izatera pasatuko da obra berriko etxebiztza erostea. Babes ofizialeko etxebizitzek %4ko BEZarekin jarraituko dute, eta bigarren eskuko etxebizitzen salerosketak ez du BEZik izango. Hori bai, 2013an etxea erosten dutenek ez dute orain arte egon den desgrabazioa izango, ez badute behintzat urtarrilaren 1a baino lehen erosten.

## %4

**BEZ supermurriztua ez da aldatzen. Premiazko produktuak dituzte bakarrik.**

- *Esnea eta esnekiak*
- *Ogia eta berau egiteko zerelak*
- *Botikak*
- *Arrautzak*
- *Liburuak, aldizkariak...*

## %10

**BEZ murriztua da eta 2 puntu handitu da, 8tik 10era pasatuz**

- *Garraio-txartelak*
- *Ordenagailuak*
- *Ostalaritza eta hotelak*
- *Konpresak eta tanpoiak*
- *Etxebizitza (lehen %4 zuen)*

## %21

**Beste bi kategorietan ez dagoen guztia.**

- *Zinemako sarrerak (lehen %8)*
- *Betaurreko eta lentillak (%4)*
- *Kateetako ile-apaidegiak (%8)*
- *Lore-dendak (%8)*
- *Hileta-zerbitzu enpresak (%8)*
- *Arropa eta zapatak*
- *Altzariak*
- *Telefonoa eta Internet*
- *Higiene produktuak*
- *Liburu elektronikoak*
- *Automobilak*
- *Alkohola eta tabakoa*
- *Gasolina*
- *Zezenketak*

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
☎ 943 20 22 33
ZULOAGATARREN, 7

SM MUGICA
ITURGINTZA
Aire Egokitua, Iturgintza,
Gasaren instalazioa, kalefakzioa,
petrolio-produktuak, bainuen
erreformak eta abar...
HANSGROHE kanilen banatzailea
Zoru erradiatzailea
Eguzki-energia
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



KILT
ENGLISH CLASSES
Philip Wylie
Ingeles Irakaslea
Julian Etxeberria 8, behea
Tfnoa: 943 20 81 21


Jai Zoriontsuak!
Tel. 943 202 727 Faxa. 943 208 991
Arrate auzoa, z/g -EIBAR-
Ezkontzak
Dantza terrazan
berandu arte
HOTELA
JATETXEA
Krabelin
Enpresa bazkariak
conecta@hotelkrabelin.com
www.hotelkrabelin.com
ASTELEHENETAN ITXITA


ARRATEKO AMAREN JAIAK 2012
irailak 7/8/9
antolatzailea:
EIBARKO UDALA
laguntzaileak:
ANDIRAO ELKARTEA, ...ETA KITTO!,
BETIKUAK, EIBARKO KLUB DEPORTIBOA,
KEZKA DANTZA TALDEA

## 60 euro ikasleei laguntzeko




**KURTSO BERRIAREKIN BATERA, IKASLEENTZAT DIRU-LAGUNTZAK** eskatzeko epea zabaldu da: Umeak Eskolara programari jarraituta, 1997ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeek izango dute laguntza jasotzeko aukera, beti ere baldin eta Eibarko erroldan izen-emanda badaude. Diru-laguntzak Ikasleei programako laguntzak, berriz, irakaskuntza arautuko edo lanbide-prestakuntzako ikasleei zuzenduta daude. Ez dute laguntzarik jasoko ikasketa osagarriak egiten dabiltzatenek (masterrak, doktoradutza, hizkuntza, informatika-erabiltzaile, gida-baimena…). Eskaerak 1987ko urtarrilaren 1etik 1996ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoek egin ditzakete. Kasu bietan laguntza 60'10 eurokoa izango da eta dirua eskolarako behar duten materiala Eibarko dendetan erosteko erabili beharko dute. Eskaerak Eibar Merkataritza Gune Irekiaren egoitzan (Untzaga Plaza, 7-3 behean) aurkeztu beharko dira eta informazio zabalagoa behar izanez gero Pegorara jo daiteke.




## Begirale titulua lortzeko ikastaroa

**GURE HERRIAN HAURREN AISIALDIAN LAN EGINGO DUTEN** begiraleak euskaraz formatzeko asmoz, begirale titulu ofiziala lortu nahi dutenentzat ikastaroa emango dute Urtxintxa hezitzaile eskolakoek. Parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak 18 urtetik gora izatea (edota atal praktikoa hasi baino lehen betetzea) eta euskaraz jakitea dira eta ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek www.urtxintxa.org helbidean izango dute eskaera egiteko aukera, irailaren 11ra arte.




## Euskaraz Bizi Nahi Dut lasterketarako izen-ematea

**EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAREN ESKUTIK** eta beste herri batzuetan bezala, Euskaraz Bizi Nahi Dut herri-lasterketa egingo da Eibarren irailaren 22an. Euskararen aldeko lasterketa herrikoia herri barruan izango da eta bertan parte hartu nahi dutenek aldez aurretik izena emateko aukera izango dute, Klub Deportiboan astelehenetik aurrera egunero, 19.30etatik 20.30etara. Izen-ematea internet bidez ere egin daiteke, www.euskarazbizinahidut.org webgunean eta lasterketaren egunean bertan ere izena emateko aukera eskainiko dute. Prezioak, berriz, honako hauek dira: haurren izen-ematea euro bi eta izen-ematea + kamiseta 7 euro; helduen izen-ematea 5 euro eta izen-ematea + kamiseta 10 euro.

## Erakusketa aretoak oporretan oraindik

**UDAKO ETENALDIA ETA GERO**, datozen egunotan helduko diote ikasturte berriari gure herriko erakusketa aretoek. Arrate Kultur Elkartearen Topalekuak irailaren 14an zabalduko ditu ateak, Marta Irusta eibartarraren zilarrezko bitxien erakusketarekin. Bide batez, Topalekuko arduradunek artistei dei egin nahi diete, bertan erakusketa ipintzeko interesa izanez gero eurekin harremanetan ipini eta horretarako aukerak ikusteko. Interesa dutenek 638284912 telefono zenbakira deitu dezakete (Maite Arriaga). Portaleko erakusketa aretoak, bestalde, irailaren 21ean zabalduko ditu ateak, urriaren 14ra arte ikusgai izango den Juan Antonio Palacios argazkilariaren lanekin; nahi duenarentzat bisita gidatuak eskainiko ditu, hilaren 27an eta urriaren 4an, 19.00etan hasita.

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

iTURRi
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

## Ikasturte berrirako matrikulazioak zabalik

**KURTSO BERRIRAKO MATRIKULAZIO EPEAK ZABALIK DAUDE** udal eskola eta programetan zein euskaltegietan izena eman nahi dutenentzat. Dibujo eta Zeramika Udal Eskoletan izen-emateko epea irailaren 3tik 7ra bitartean egongo da zabalik (Pegoran, 010 eta 943708400 telefono zenbakietan); Udal Euskaltegian irailaren 3tik 20ra (Udal Euskaltegian, Bista Eder, 10ean, 943 700912 telefono zenbakian); AEK Euskaltegian irailaren 3tik 28ra (AEK Euskaltegia, Sostoatarren, 1ean, 943201379 telefonoan).

Eta egun gutxi barru honakoetan izen-emateko epea zabalduko dute: Afariketan programan parte hartu nahi dutenek irailaren 17tik 20ra izango dute izen-emateko aukera, Indianokua Gaztelekuan (Muzategi, 3an), 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara; eta Zapatuetako Tailerretan parte hartu nahi dutenek, berriz, ikastetxeetan bertan izango dute izen-emateko aukera, irailaren 24tik 28ra. Informazio gehiago nahi izanez gero, Astixara jo daiteke (Zezenbide, 7, 943206231 telefono zenbakian).



Haur zein helduentzat aukera zabala eskaintzen dute udal programek eta euskaltegiek. / L. Iturbe

## Liburutegiko irakurketa klubak bueltan

**AURREKO IKASTURTEAN EGINDAKOAREN BIDETIK**, honetan ere helduen zein umeen irakurketa klubak ipiniko dituzte martxan Juan San Martin Liburutegian. Helduen kasuan, lehenengo saioa urriaren 9an izango da (hurrengoak azaroaren 13an eta abenduaren 11n izango dira), 19.00etatik 20.00etara Portalean eta bertan parte hartzen dutenek aldez aurretik aukeratutako liburuez jarduteko aukera izango dute, aditu batek koordinatuko dituen saioetan. Prezioa 11 eurokoa da Eibarren erroldatutakoentzat eta 19 eurokoa besteentzat.

Umeen irakurketa klubeko saioak, bestalde, 6-9 urte bitartekoei zuzendutakoak dira eta parte hartu nahi dutenek heldu batek lagunduta joan beharko dira bertara, programaren arduradunek *"umearen irakurzaletasuna finkatzeko gurasoen inplikazioa garrantzitsua dela"* uste baitute.

Hileroko saioak Portalean izango dira, urriaren 23an eta azaroaren 20an, 18.00etatik 19.00etara. Prezioa 12 eurokoa da Eibarren erroldatutakoentzat eta 19 eurokoa besteentzat. Kasu bietan informazioa eskatzeko edo izena emateko irailaren 10etik 21era Pegorara jo daiteke eta 2013rako matrikulazio epe berria zabalduko dela aurreratu dute.



Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu irakurketa klubak. / Leire Iturbe

## laburrak

### LEHIAKETAK ABIAN

Udalak eta Plano Corto Elkarteak antolatutako Asier Errasti Eibarko XIII. Laburmetraia Jaialdirako lanak aurkezteko epea urriak 5ean amaituko da (www.planocorto.es edo www.eibar.net webguneak eta 943708435 telefono zenbakia. Udalak eta Klub Deportiboak antolatutako Indalezio Ojanguren XXV. Argazki Lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna, urriak 10 izango da (informazio Portalean); eta Sanandresak 2012 Eibarren kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea urriak 19ra arte egongo da zabalik.

### PLAYBACK LEHIAKETA

El Corte Inglés-ak III. Playback Lehiaketa antolatuko du. Lehiaketa irailaren 14an eta 15ean izango da, merkataritza zentroko 3. solairuko terrazan. Parte hartu nahi dutenek liburudendan eman dezakete izena, irailaren 13a baino lehen.

### KEZKA-RAKO MATRIKULAZIOA

Kezka Dantza Taldean euskal dantzak ikasteko 2012-2013 ikasturteko matrikulatze epea datorren astelehenean, irailaren 10ean zabalduko da. Izena eman nahi duenak Portalean izango du horretarako aukera, 18.00etatik 20.00etara (6 urtetik gorako ikasleak onartuko dituzte).

---

# SALVADOR MARZANA AMUATEGUIren

2. URTEURRENA (2010-IX-7)

*Ez dugu gehiago zure hitzik entzungo,*
*baina bai makina bat aldiz zure esanak gogoratuko.*

*ZURE EMAZTEAK*



## HILDAKOAK

- **Asun Basauri Ormaetxea.** 89 urte. 2012-VI-1.
- **Benigno Conde Conde.** 55 urte. 2012-VI-2.
- **Encarnación Antón Prieto.** 88 urte. 2012-VI-3.
- **Ana Isabel Beistegi Arzuaga.** 55 urte. 2012-VI-7.
- **Victor Amesti Ibarguren.** 77 urte. 2012-VI-8.
- **Margarita Arrizala Galdos.** 90 urte. 2012-VI-10.
- **Mª Jesus Garate Garate.** 89 urte. 2012-VI-11.
- **Avelino Ekiza Carlos.** 85 urte. 2012-VI-11.
- **Sor Mª Dolores Ron Manso.** 81 urte. 2012-VI-11.
- **Angelita Iñarra Trokaola.** 95 urte. 2012-VI-13.
- **Teresa Hernández Elizondo.** 80 urte. 2012-VI-14.
- **Josefa Bollar Aranguena.** 87 urte. 2012-VI-15.
- **Jesus Ron Manso.** 85 urte. 2012-VI-16.
- **Maria Etxeberria Zuloaga.** 89 urte. 2012-VI-16.
- **Merche Prieto Rodríguez.** 44 urte. 2012-VI-17.
- **Eufemia Urkiaga Mugira.** 94 urte. 2012-VI-18.
- **Ernesto Riaño Aparicio.** 57 urte. 2012-VI-18.
- **Iñaki Zurutuza Aperribai.** 81 urte. 2012-VI-18.
- **Pepita Osa Osoro.** 89 urte. 2012-VI-19.
- **Rosa Alzueta Mendibe.** 89 urte. 2012-VI-19.
- **Evaristo Coterón Noriega.** 72 urte. 2012-VI-19.
- **Mª Cruz Díez Lara.** 85 urte. 2012-VI-20.
- **Jose Mª Sololuze Paguegi.** 74 urte. 2012-VI-22.
- **Jose Ramon Llarena Cano.** 70 urte. 2012-VI-23.
- **Gude Nieto Carrión.** 80 urte. 2012-VI-23.
- **Juan Carlos Suinaga Espín.** 64 urte. 2012-VI-23.
- **Gregoria San Vicente Urbina.** 96 urte. 2012-VI-23.
- **Felix Salaberria Urkiola.** 80 urte. 2012-VI-24.
- **Julia Teruelo Teruelo.** 81 urte. 2012-VI-25.
- **Sabina Larrinaga Lejardi.** 89 urte. 2012-VI-26.
- **Santos Elkoroiribe Osoro.** 86 urte. 2012-VI-26.
- **Cecilio López Alonso.** 77 urte. 2012-VI-26.
- **Jose Luis Irigoien Sarasketa.** 73 urte. 2012-VI-27.
- **Piedad Sáinz de la Maza Loroño.** 87 urte. 2012-VI-28.
- **Mª Pilar Fernández Redondo.** 83 urte. 2012-VI-28.
- **Miguel García Pascual.** 90 urte. 2012-VI-29.
- **Eugenio Olariaga Gallastegi.** 92 urte. 2012-VI-29.
- **Jesus Astigarraga Astigarraga.** 75 urte. 2012-VII-1.
- **Magdalena González Bilbao.** 83 urte. 2012-VII-1.
- **Esteban Mujika Egaña.** 54 urte. 2012-VII-2.
- **Domingo Rodríguez Tortajada.** 74 urte. 2012-VII-3.
- **Brigida Amutxastegi Aristondo.** 82 urte. 2012-VII-3.
- **Alicia García Delgado.** 81 urte. 2012-VII-4.
- **Jose Luis Bolunburu Trebiño.** 89 urte. 2012-VII-5.
- **Bene López Peral.** 92 urte. 2012-VII-6.
- **Bittor Luis Casal.** 43 urte. 2012-VII-7.
- **Juan Jose Gutiérrez Castro.** 83 urte. 2012-VII-8.
- **Valentín Romero Sánchez.** 76 urte. 2012-VII-12.
- **Arrate Sarasua Alberdi.** 78 urte. 2012-VII-13.
- **Crescencia Landa Aiazarguena.** 85 urte. 2012-VII-15.
- **Jose Antonio Cañaveras Toro.** 72 urte. 2012-VII-17.
- **Purificación Gutiérrez Montoya.** 85 urte. 2012-VII-18.
- **Maria Stepanovna Dubowik.** 88 urte. 2012-VII-20.
- **Asuncion Astaburuaga Arizmendiarrieta.** 88 urte. 2012-VII-24.
- **Herminia Arizaga Egaña.** 2012-VII-25.
- **Andres Armaolea Agirrebeña.** 88 urte. 2012-VII-26.
- **Gabriel Gisasola Guridi.** 52 urte. 2012-VII-26.
- **Jose Mª Arriaga Urkidi.** 87 urte. 2012-VII-28.
- **Ana Alzelai Belaustegi.** 48 urte. 2012-VII-28.
- **Isabel Egidazu Eguen.** 65 urte. 2012-VII-29.
- **Isabel Irulegi Urizarbarrena.** 98 urte. 2012-VII-30.
- **Javier Aranburu Telleria.** 69 urte. 2012-VII-30.
- **Amalia Pardo Rozas.** 83 urte. 2012-VII-31.
- **Juan Luis Vilanova Alvarez.** 47 urte. 2012-VIII-1.
- **Julia Dorado Maiztegi.** 95 urte. 2012-VIII-2.
- **Juan Carlos Esturo Muñoa.** 74 urte. 2012-VIII-3.
- **Carmen Llama Díez.** 83 urte. 2012-VIII-3.
- **Ofelia Husillos Maruri.** 66 urte. 2012-VIII-4.
- **Esperanza Azpitarte Manchovas.** 96 urte. 2012-VIII-5.
- **Urbano Txabarri Alvarez.** 88 urte. 2012-VIII-6.
- **Felisa Arizmendiarrieta Otegi.** 98 urte. 2012-VIII-8.
- **Dionisio Etxeberria Garín.** 83 urte. 2012-VIII-10.
- **Aurelio Olabe Arrizabalaga.** 77 urte. 2012-VIII-10.
- **Silvina Bueno Cortés.** 86 urte. 2012-VIII-11.
- **Juanita Olabarria Aranguren.** 94 urte. 2012-VIII-12.
- **Benita Olea Mandiola.** 93 urte. 2012-VIII-12.
- **Santi Agirregomezkorta Garitaonandia.** 72 urte. 2012-VIII-14.
- **Lazaro Gómez Ortega.** 84 urte. 2012-VIII-14.
- **Iñaki Ugarteburu Eizagirre.** 89 urte. 2012-VIII-15.
- **Jose Lamariano Lizarralde.** 81 urte. 2012-VIII-16.
- **Nieves Bustinduy Madinabeitia.** 86 urte. 2012-VIII-22.
- **Florencio Uriarte Baraiazarra.** 89 urte. 2012-VIII-24.
- **Beatriz Gómez Uribarri.** 74 urte. 2012-VIII-24.
- **Maria Salaberria Errasti.** 89 urte. 2012-VIII-26.
- **Julian Telleria Solozabal.** 82 urte. 2012-VIII-26.
- **Mireia Baglietto Arrese.** 53 urte. 2012-VIII-27.
- **Pablo López López.** 79 urte. 2012-VIII-28.
- **Arrate Berrizbeitia Gorosabel.** 43 urte. 2012-VIII-28.
- **J. Luis Sagardui Mallabiabarrena.** 81 urte. 2012-VIII-29.
- **Olga Elorza Gallastegi.** 2012-VIII-29.
- **Jose Lorizate Ormaetxea.** 81 urte. 2012-VIII-30.
- **Fortunato Vesga Vesga.** 91 urte. 2012-VIII-30.
- **Candida Ramos Porto.** 81 urte. 2012-VIII-30.
- **Hipolito Aliende Miranda.** 92 urte. 2012-VIII-31.
- **Carmen Mancera Domínguez.** 77 urte. 2012-IX-3.
- **Jose Maguregi Martitegi.** 93 urte. 2012-IX-4.

## JAIOTAKOAK

- **Jon Gastesi Opazo.** 2012-VI-2.
- **Nabil Mansouri.** 2012-VI-4.
- **June Morán Ruiz de Cenzano.** 2012-VI-6.
- **Oier Miguel Caravantes.** 2012-VI-7.
- **Unax Caño García.** 2012-VI-7.
- **Uxue Agirregomezkorta Diéguez.** 2012-VI-8.
- **Danel Rodríguez Rodríguez.** 2012-VI-8.
- **Malen Román Fernández.** 2012-VI-9.
- **Nora Arana Marcos.** 2012-VI-11.
- **Kloe Leturiondo Gisasola.** 2012-VI-12.
- **Naroba Gutiérrez Morcillo.** 2012-VI-14.
- **Mikel Ortega Vega.** 2012-VI-18.
- **Jon Unanue Larrañaga.** 2012-VI-18.
- **Elena Gascón Morro.** 2012-VI-20.
- **Hodei Sáez Arias.** 2012-VI-20.
- **Unai Valdés Valdés.** 2012-VI-21.
- **Maria Prieto Luque.** 2012-VI-21.
- **Salma Sarrakh.** 2012-VI-21.
- **Rayan Ben Lahbib.** 2012-VI-22.
- **Luken García García.** 2012-VI-24.
- **Ilaia Díaz Buezas.** 2012-VI-25.
- **Jon Justel Cabezón.** 2012-VI-28.
- **Anette Izarra Agirregomezkorta.** 2012-VII-6.
- **Nora Teruelo Alonso.** 2012-VII-11.
- **Darwin Josue Martínez Lampín.** 2012-VII-11.
- **Maialen Pérez Peñafiel.** 2012-VII-11.
- **Naia Mejuto Argiñao.** 2012-VII-12.
- **Lizar Olabarriaga Aldalur.** 2012-VII-12.
- **Luken Moro Galindo.** 2012-VII-13.
- **Ilargi Grande Esnaola.** 2012-VII-15.
- **Jaire Amillategi Ramos.** 2012-VII-15.
- **Lisset Rosse Dilone Sala.** 2012-VII-17.
- **Malen Agirrebeña Rodríguez.** 2012-VII-18.
- **Youssef Tnibar Zhiri.** 2012-VII-19.
- **Houda El Ayadi.** 2012-VII-20.
- **Jone Da Silva González.** 2012-VII-24.
- **Aingeru Da Silva Patino.** 2012-VII-25.
- **Julen Glez. de Audikana Iriondo.** 2012-VII-31.
- **Yuchen Xia.** 2012-VIII-5.
- **Aitana García Dávila.** 2012-VIII-12.
- **Alaitz Bollar Alonso.** 2012-VIII-14.
- **Nadia Zubiate Ortega.** 2012-VIII-17.
- **Asier Hernández Garitano.** 2012-VIII-18.
- **Nerea Arroyo Apaolaza.** 2012-VIII-18.
- **Ander Merino Arnaiz.** 2012-VIII-20.
- **Julen Unanue Mugerza.** 2012-VIII-22.
- **Jon López de Viñaspre Martín.** 2012-VIII-22.
- **Ibai Pérez Alegre.** 2012-VIII-22.
- **Uxue Kerejeta Fernández.** 2012-VIII-24.
- **Martxel Azpiazu Arregi.** 2012-VIII-24.
- **June Treviño Olabarria.** 2012-VIII-26.

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 9 | | 1 | 4 | | |
| | | 9 | | | | 3 | | |
| 7 | 1 | | | 5 | | | 9 | |
| 5 | | | | 1 | | | | 7 |
| | | 7 | 5 | | 9 | 8 | | |
| 9 | | | | 4 | | | | 5 |
| | 9 | | | 8 | | | 2 | 4 |
| | | 2 | | | | 1 | | |
| | | 5 | 4 | | 3 | | | |

## DENBORAPASAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 8 | 1 | 2 | 4 | 3 | 6 | 7 | 9 |
| 9 | 3 | 4 | 5 | 7 | 6 | 8 | 2 | 1 |
| 2 | 6 | 7 | 8 | 9 | 1 | 4 | 5 | 3 |
| 4 | 1 | 8 | 7 | 2 | 9 | 3 | 6 | 5 |
| 3 | 5 | 2 | 4 | 6 | 8 | 1 | 9 | 7 |
| 7 | 9 | 6 | 1 | 3 | 5 | 2 | 8 | 4 |
| 6 | 2 | 9 | 3 | 5 | 4 | 7 | 1 | 8 |
| 1 | 4 | 5 | 6 | 8 | 7 | 9 | 3 | 2 |
| 8 | 7 | 3 | 9 | 1 | 2 | 5 | 4 | 6 |

AURREKOAREN EMAITZA

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, ANE eta SARE, zuen urtebetetziarengaittik. Famelixaren partez.



Zorionak, HIRUKOTE, julixoko 29xan eta 31n eta abuztuko 12xan urtiak bete zenduezen-eta. Muxu potoluak amatxoren partez.



Zorionak, IRATI, etxeko printzesa, abuztuan zazpi urte bete zenduazen-eta. Aitatxo, amatxo eta Ekhiren partez.



Zorionak, MANEX, zure zazpigarren urtebetetzian. Laztan erraldoi bat famelixako guzti-guztion partetik.



Zorionak, UXUE, gaur bi urte egitten dozuzelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAIA, domekan bi urte egin zenduazen-eta. Eibarko famelixaren eta, batez be, Uxueren partez.



Aupa erregintxo! Zorionak, NAIARA, zure zortzigarren urtebetetzian. Etxekuen partez.



Zorionak, MARTIN (urtebete) eta UXUE (lau urte) urtiak egin dozuezelako. Nerea eta famelixakuen partez.



Zorionak, ANER. Sei urte honezkero. Asko maitte zaittugu, txipiron, eta jaso Juneren muxu berezixa.



Zorionak, URKO, uda honetan zazpi urte egin dozuz-eta, artista!



Zorionak,KEPA, astelehenian sei urte egingo dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, EGOITZ Eitzagaetzeberria, abuztuan bost urte egin zenduazen-eta. Amaren famelixa eta lagunen partez.

## asteburuko zinea

***1 aretoan: "La delicadeza"***
***2 aretoan: "El irlandés"***
***Antzokian: "Abraham Lincoln" eta "Brave (Indomable)"*** *(azken hau zapatuan eta domekan, 17.00etan)*

***Barixakuan (22.30) / Zapatuan (17.00, 19.45 eta 22.30)***
***Domekan (17.00 eta 20.00) / Astelehenean (20.30)***

## farmaziak

***6, eguena***
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

***7, barixakua***
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

***8, zapatua***
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

***9, domeka***
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

***10, astelehena***
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

***11, martitzena***
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

***12, eguaztena***
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

***13, eguena***
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

***14, barixakua***
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

## telefono jakingarriak

SOS deiak ........................*112*
Pegora .............................*010*
Udaletxea .........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.....*943 20 15 25*
Mankomunitatea*943 70 07 99*
Debegesa..........*943 82 01 10*
KIUB .................*943 20 38 43*
Epaitegia ..........*943 03 34 00*
Iberdrola ..........*901 20 20 20*
Naturgas...........*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..*943 22 22 22*
Mendaro osp.....*943 03 28 00*
Anbulategia......*943 03 25 00*
Torrekua...........*943 03 26 50*
Errepideak........*902 11 20 88*
Ertzaintza .........*943 53 17 00*
Eusko Tren .......*902 54 32 10*
Pesa .................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
.........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ..*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen *650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.
**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40.
**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# etakitto.iragarkilaburrak.com

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Errekatxu kalean. Logela bi, jangela, sukaldea eta komuna. Altzariekin. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 659-757572.
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 130 $m^2$. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
– Ubitxa kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Sartzeko moduan. Igogailua eta gas naturala. 90.000 euro. Goizez deitu. Tel. 659-088244.

### 1.2. Errentan

– Gela biko pisua hartuko nuke alokairuan Ermuan. Tel. 608-474923.
– Pisua konpartituko nuke beste lagun batekin Eibarko erdialdean. Tel. 689-236575.
– Pisua alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. Lagun bat edo birentzat. Tel. 660-378181 eta 943-207271.
– Pisua alokagai Saturraranen, uztaila, abuztua eta irailerako. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza ederra. Igerilekua eta frontoia. Tel. 676-430299.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Taberna alokagai Eibarren, jubilazioa dela-eta. Sozietate edo elkartea egiteko aproposa. Tel. 672-777429.
– Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
– Garajea alokagai Asua-Errekan. Sarbide azkarra. Tel. 670-793312.
– Ileapaindegia alokagai. Aukera paregabea. Oso ekonomikoa. Arazo pertsonalengatik lagatzen da. Tel. 667-806737.
– Txomon garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-419214.
– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, biltegian lan egiteko eta igeltsero moduan. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 688-302653.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-306915.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 616-218076.
– Emakumea eskaintzen da hoteleko kamarera moduan, sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-474923.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 686-052084.
– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-376387.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka edo interna. Tel. 646-143287.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-619997. Trinidad.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Orduka. Tel. 690-134485.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 696-802587 eta 943-031697. Isabel.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko asteburuetan. Tel. 646-821678.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta baserrian laguntzeko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-101631.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-180132.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-658156.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-873547.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 600-290524.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-124325.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-126144.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 672-677626.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 645-557141.

– Mutil arduratsua eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-812845.
– Neska eskaintzen da etxean klase partikularrak emateko eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 622-824468.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 602-530160.
– Mutila eskaintzen da baserriak garbitzeko eta nagusiak paseatzera ateratzeko. Tel. 645-555265.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 645-557141.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da etxekolanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 690-857515.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 686-265293.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 679-947086.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean (goizez, arratsaldez eta orduka). Esperientzia. Tel. 685-729790.
– Gizon-emazte txalapartariak (Nerea eta Jade) eskaintzen dira ezkontza, bataio, despedida, urtebetetze eta ongietorrietarako. Tel. 679-740061.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 634-007292.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 648-873547.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 660-213652.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 638-584293.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 679-211523.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 628-014327.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da etxekolanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 649-258913.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 630-826813.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko orduka. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 638-047847.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.

### 4.2. Langile bila

– Apple-en aditua behar dugu lan puntual baterako. Tel. 943-201844.
– Ileapaintzailea behar da ilepaindegi batean. Jornada erdiz eta ostiraletan egun osoz. Esperientzia baloratuko da. Tel. 675-462463.
– Garbitzailea behar da Arrateko jatetxe batean. Autoarekin. Tel. 656-752658.
– Hotel-zuzendaria eta maitrea behar ditugu Debako eta Lekeitioko Aisia hoteletan. Bidali curriculum-a rrhh@aisiahoteles.com helbidera.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da akademia batean. LHtik Batxilergo mailaraino. Curriculuma bidali: akademialana@gmail.com. Tel. 696-295098.

### 5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle trukea eta azterketen prestaketa. HEO. Tel. 647-275374.
– Ingelesezko klaseak ematen dira. Euskaldun zein erdaldunentzat, haur zein helduak. Tel. 660-378181 eta 943-207271.
– Gitarra elektrikoko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. Tel. 679-740061.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Ehizarako setter txakur-emea salgai. Tel. 649-258913.
– Eskopeta gainjarria (*superpuesta*) salgai. Tel. 649-258913.
– Bigarren eskuko 3. mailako DBHko liburuak salgai. Egoera onean. Tel. 676-752278.

### 6.2. Eman

– Pegorako 15 buzoien pack-a oparitzen da. Tel. 617-688311. Maria.

### 6.4. Bestelakoak

– Ortua erosiko nuke (edo terrenua ortua ipintzeko) Ermua aldean. Tel. 627-833274.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

# CAPI

*Zure edertasunaren zerbitzura!*

OSTEOPATIA - REFLEXOLOGIA - KIROMASAJEA

AURPEGI ETA GORPUTZ RADIOFREKUENTZIA - KABITAZIOA - LASER DEPILAZIOA



MESOTERAPIA - GEL AZAKALAK - IA BETIRAKO ESMALTATUA

AURPEGIKO FOTOGAZTETZEA - MIKRODERMOABRASIOA

## Gorputz tratamenduak

KOIPE GUTXITZEA
ZELULITIS GUTXITZEA
AZAL INDARTZEA







**TEKNIKAK:**
- Kabitazioa
- Radiofrekuentzia
- Laser lipolitikoa BERRIA!!

**BONO BEREZIAK**

**LASER DEPILAZIOA**

## Masajeak

OSTEOPATIA
KIROMASAJEA
MASAJE TERAPEUTIKOAK
REFLEXOLOGIA



## Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- MANTXAK *(berria)*

# Nik ♥ euskara

**ESKAINTZA**
- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak
- 3. maila (EGA) egunero eta astean bitan
- Azterketa prestakuntza: HABEren 1. eta 2. mailak (Perfilekin homologatuta)
- Titulu ofizialak

*EibarkoUdalaketaHABEkdiruzlagundutakozentroa*
*BEKAK*

**IKASTARO BEREZIAK**
- Autoikaskuntza: BOGA programa (tutoretzak eta mintzasaioak)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (AISA)
- EGAtik gorakoak: sakontze, itzulpengintza, Euskaltzaindiaren arauak, 4. maila...
- Eibarrera
- Mintza-praktika ikastaroak
- Talde bereziak: jubilatuak, gurasoak...
- Ikastaroak enpresetan

2012-2013 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK
*Udal Euskaltegian* www.udaleuskaltegiak.net
**Irailaren 3tik 20ra bitartean**

**Bista Eder 10 -PORTALEA-**
euskaltegiaeibar@telefonica.net
Telefonoa: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

# GARAJE PLAZA LIBREEN SALMENTA

# LEGARRE - GAIN, EIBAR





**Zona Alta**
sociedad cooperativa

**Babes Ofizialeko Etxebizitzen PROMOZIOA, KOOPERATIBA ERREGIMENEAN**

**TELEFONOA: 94 346 22 16    MOBILA: 609 86 97 74**

- ✓ Garaje plaza behe solairu eta erdisotoan, marraduna.
- ✓ 20,50 m$^2$-tik 31,31 m$^2$-rainoko superfizieak.
  (Denon erabilerarako elementuak barne)
- ✓ Prezioak 23.165 €-tik hasita (gehi BEZ-a).
- ✓ Entrega data: 2013ko 4. HIRUHILEKOA.
- ✓ BERMATUTAKO kantitateak.

KUDEATZAILEA
IGCVS, SA

FINANTZATZAILEA
CAJA RURAL DE NAVARRA

ERAIKITZAILEA
ANTZIBAR